

Andra Mari ikastetxeko jantokian urtebetetzeak ospatzeko araudia

1. Ordutegia

Ospatzeko ordutegia 16:30etik 19:00etara

izango da. Hona hemen kontuan hartu

beharrekoak:

- Guraso antolatzaileak patio estalian egon beharko dira 16:00etatik.
- Jantokira 16:30etik aurrera sartu ahal izango da askaria prestatzen hasteko.
- Antolatzaileak ez diren gainerako aita/ama/tutoreak ezin izango dira ikastetxean egon 16:00 eta 16:30 bitartean.
- Jantokia 19:00ak arte erabili ahal izango da, eta ordu horretan gainbegiralea garbitzen hasi beharko da.

2. Ospatzeko egunak

Asteazkenak eta ostiralak.

3. Parte hartzaileak

Gehienez, ikasturte bereko HIRU gela edo ikasturte ezberdinetako HIRU gela gonbidatu ahal izango dira. (Gehienez ere, 75 ikasle.)

Ospakizunak Andra Mariko ikasle guztiei zuzenduta daude:

- Saratxaga: HH0-HH1
- Andra Mari: HH2-HH3 eta LH1 mailatik LH6 mailara

Ospakizuna gelako ikasle GUZTIEI zuzenduko zaie BETI.

EZ da onartuko gela bereko ikasle BATZUK BAKARRIK gonbidatzea.

Ez da aurreikusi ikasleen anai-arrebak edota lagunak eta bestelako senideak edo etxeko abereak (txakurrak) bertaratzea. Gelako ikasleentzako urtebetetze ospakizuna da.

Salbuespen gisa, "familia antolakuntza" errazte aldera, urtebetetzea antolatzen duten familiek ikastetxean matrikulatutako anai-arrebak ekarri ahal izango dituzte, formularioan aldeztu aurretik jakinarazita. Bertan, anai-arreben izena eta maila adierazi beharko dira. Gurasoek jakinarazi beharko diote tutoreari egun horretan autobus zerbitzua erabiliko ez badute.

4. Ospakizunaren gainbegiralea

Hasiera batean, gurasoen elkarrekin zentroan laguntzeko kontratatutako pertsonak ospakizuna gainbegiratu du eta arazorik ez egoteaz arduratuko da. Arduraduna edozein arrazoiengatik bertaratu ezin bada, ikastetxeak jantokiko langileen artean gainbegirale bat izendatuko du ospakizuna behar bezala egin ahal izateko.

Arduradunaren eginkizunak honako hauek izango dira:

- Erabiliko diren gelak irekitzea eta ixtea, 16:30etik aurrera.
- Gelak zaintzea, haurrak soilik baimendutako espazioetan eta behar bezala egotea bermatzeko.
- Ospakizuna amaitu ondoren, instalazioak garbitzea. Euria egiten badu estalitako patioa ere garbitu beharko da.
- Ospakizunetarako kontaktua:

Helbide elektronikoa: urtebetetzeak@andramari.net

Mugikorra: 94 613 092 565

5. Baimendutako espazioak

Hauexek dira baimendutako espazioak:

- JANTOKIA, 16:30etik 19:00etara (sukaldea izan ezik, itxita egongo baita).
- KANPOKO PATIOA eta polikiroldegiko kanpoko komunak.
- ESTALITAKO PATIOA (soilik euria egiten duen egunetan).
- KANPOKO KOMUNAK, polikiroldegiaren albokoak (erabil daitezkeen BAKARRAK izango dira).

Baimendutako espazioen oharrak

- Estalitako patioan, ezin izango dira Txikipark gunea eta baloiak erabili.
- Jantokian
 - ✓ Sartzeko eta irteteko jantokira patiotik sartzeko kanpoko atea besterik ezin izango da erabili.
 - ✓ SOILIK jan, marraztu edo mahai jokoetara (plastilina, kartak eta antzekoak jolastu ahal izango da. Debekatuta dago ESPAZIO HORRETAN JOLASTEA oinez, korrika, baloiekin edo jarduketak, gynkanak edo piñatak egitea, bai eta serpentinak edo antzekoak erabiltzea ere. Jarduera horiek kanpoan egin beharko dira edo, euria egiten badu, patio estalian.

6. Baimenduta ez dauden espazioak

Gutziz debekatuta dago ikastetxeko gainerako instalazioak erabiltzea, bereziki:

- Ikastetxeko barruko komunak
- Jantokiko sukaldea
- Irakasleen sukaldea
- Haurrak ezin izango dira zentroko atzeko aldean egon.

7. Normalean debekatuta dauden jokoak erabili

Eskola orduetan normalean debekatuta dauden jokoak (bizikletak, patinak, monopatinak, etab.) erabili ahal izango dira soilik kanpoko patioan, eta soilik eskolaz kanpoko ekintzak amaitzen direnean, 17:15ean.

8. Askaria

Familia antolatzaileak arduratuko dira askaria ekartzeaz, eta askaria antolatzeaz.

9. Ospakizunaren prezioa

Kontratazioaren prezioa 50 euro izango dira.

Familia antolatzaileek diruz ordainduko diote gainbegiraleari ospakizunaren egunean bertan.

10. Erreserba

Espazioa erreserbatzeko beharrezko galdetegiak eta baimenak bete beharko dira elkartearen webgunean.

Behar bezala betetzen ez badira ezin izango da jantokia erreserbatu.

Beteko den baimena espazioa erreserbatzeko eskaera izango da. Ospakizunen arduradunak jasoko du eta, espazioaren erabilgarri dagoela egiaztatu ondoren, familiari erantzungo dio posta elektronikoz eta dagozkion baimenak betetzen hasi ahal izango dira. (Baimen galdetegia)

11. Ospakizunaren eskatzaileak

Ospakizunaren eskatzaileak (aita/ama/tutorea/ikastetxeko ikasleen tutorea) arduratuko dira honako alderdi guzti hauetaz:

- Ospakizunaren antolakuntza
- Ospakizuna behar bezala ospatzea

12. Ospakizunaren antolakuntza

- Gonbidapenak bidaltzea. Gonbidapena zuzenean Gurasogune wengunean bete dauteke, esteka dagoen tokian.

- Baimenak eskuratzea. Urtebetetzera joateko baimena ospakizunera joan edo ez berdin bete behar da. Horrela, bertaratuko diren hurren zerrenda eskuratuko da eta tartean diren ikasgelako edo geletako tutoreei eman beharko zaie urtebetetzea ospatu baino 48 ordu lehenago. Hori gainbegiraleak egingo du.

- Elkartearen webgunean aurreikusitako bitartekoei beharrezko informazioa ematea.

- Ospakizun bakoitzean guraso/tutore antolatzaile BAT egon beharko da 10 ikasleko talde bakoitzeko, gutxienez. Gela bakoitzeko bi arduradun egongo dira, gutxienez. Horien ardura izango da araudia betearaztea.
- Urtebetetzearen arduradunak beraiengana joko du, dagokion antolaketa kontuetarako.

13. Ospakizuna behar bezala ospatzea:

Guraso antolatzaileen betebeharrak:

- Gonbidatutako haurrak estalitako patioan itxaron eta hartu, 16:00etan.
- Jantokira sartzeko unean (16:30ean), askaria antolatuko da eta gonbidatutako haurrak zainduko dira.
- Gonbidatutako haurrak zaindu ikastetxean dauden bitartean (16:00etatik azken haurraren bila datozen arte), hortaz, denbora tarte horretan zehar beratan egon behar izango da.
- Gonbidatutako haurren ondasun guztiak zaindu (motxilak, arropa, etab.) jantokia ireki arte estalita dagoen patioan utziko dira.
- Ospakizuna amaitzen denean, antolatzaileen ardura izango da haurrak zaintzea, harik eta aita/ama/tutorea ikastetxera joan arte.

14. Araudia sinatzea

Ospakizuna egiteko erreserba eskatzen dutenek araudia irakurri eta sinatu beharko dute, jaia behar bezala egin ahal izateko eta hala badagokio, familia antolatzaileei bidaliko diete.

Horretarako, urtebetetzea ospatzen duen haurrak motxilan eramango du araudiaren kopia, eta sinatuta entregatu beharko dio arduradunari urtebetetzea ospatuko den egunean.



Zu bezalakoak gara / Somos como tú
gurasogune.eus